

Saskibaloia

Taugresek bere buruaren aurkako borroka hasiko du gaur Ourensen


Taldeak larri eman du astea lesioen eta gaixotasunen ondorioz

Taugresek bere buruaren kontrako lasterketari ekingo dio gaur Ourensen Ligako fase erregularrean falta diren 12 jardunaldietako 10 partidu irabazteko asmoz. Taldea, ordea, sasoirik okerrean ahaleginduko da, gaur Xacobeo taldearen aurka jokalarien erdiak larri izango ditu-eta.

Luis Karlos Garcia / Gasteiz

EUROPAN aritzea, eta, beraz, hurrengo denboraldiko aurrekontuaren zati handia izatea jokoan ditu datozen bi hilabeteetan Taugresek. Jomuga lortzeko falta diren 12 neurketak irabazi behar ditu, Real Madrid eta Unicaja taldeen kaxketan jokatu dituenak izan ezik. Gaur Galizian Xacobeo 99 taldearen kontra derigorrezko lehen garaipena lortu behar du, ostegunean bigarrena Araban Caceres-en kontra, hila-ren 17an Murtzian hirugarrena, Zurbaoko kantxan beste bat Estudiantes-en aurka edo bosgarrena Gironako pabilioian. Larregi dirudi horrek egungo Baskoniarentzat, batez ere Manel Comasen taldea sasoi aldetik inoiz baino larriago dagoela kontutan izanda.

Taugresen koadro klinikoa ikaragarria da. Bi jokalarik kantxatik urrun daude: Kenny Green eta Velimir Perasovic. Lau gizon min harturik daude, nahiz eta gaur jokatu beharko duten: Ferran Lopez, Carlus Groves, Marcelo Nicola eta Pedro Rodriguez. Bik gripeak jota eman dute astea, gaur titular izango diren arren:



Carlus Grovesek jokatu egin beharko du gaur ondo ez badago ere.

OLALDE

Ramon Rivas eta Carlos Cazorla. Jordi Millera, Miguel Angel Reyes eta Goran Sobinek besteek baino askoz hobeto eman dituzte atsedeen egunak.

Gauzak horrela izanda, entrenatzeko arazo itzelak izan dituzte. Taugresi bi garaipen falta zaizkio helburua lortzeko, baina Comasek ez dio beldurrik gano-raz entrenatu ahal izanez gero: «Denekin entrenatu ahal izango bagenu ziur naiz lehen zortzien artean sailkatuko ginatkeela, baina kontua da azken egunetan ez dugula jokalarik nahikorik izan bost gizonetako bi talderekin entrenatzeko».

Erritmo bizkorra Ourensen irabazteko. • Jokalariak ia herrenka ibilita ere, Manel Coma-

sek erritmo bizkorra nahi du gaurko: «Aurkariak korrika egin behar izatea lortuz gero, garaipena hurbil izango dugu». Millera-Reyes loturarako abagunea, bada.

Xacobeo 99 taldea denboraldi iluna egiten ari da. Hori bai, orain arte etxean garaipen gehiago izan du porrotak baino, eta Caja San Fernando, Estudiantes, Caceres eta Joventut taldeei irabazi die. Azken jardunaldian Estudiantes taldearen kantxan galdu zuen, baina ez zuen amaierara arte partidua galduta izan Lockhart eta Javi Perez jokalarien errendimendu onari esker; Tony Smith, ordea, negargarri aritu zen. Gaurko litekeena da Andres Guibert eta Roman Carbajo pibotak berreskuratzea. x

Herri Kirolak

Iparraldeko lehen saioa

Senperen lehiatuko dira gaur pisu astunetan parte hartzen duten taldeak

Jon Olaskoaga / Donostia

IPAR EUSKAL HERRIAN egingo den lehenengo jardunaldian 640 eta 680 kiloetako taldeek hartuko dute parte. Saioa Senperen hasiko da 17.00etan. Bi kategorietan Ezpeletako Napurrak lan txukuna egiteko asmoarekin plazaratuko da. Lapurdiko eta Ipar Euskal Herriko ordezkari bakarrak hobera egin duela erakutsi nahi du, Gasteizen egin Munduko Txapelketan parte hartu ondoren.

640 kiloetan bi multzotan banatu dituzte parte hartuko duten 11 taldeak. Lehenengoan Torrekolanda, Barrundia, Jai-Beti eta Auzolan-Igeldo lehiatuko dira.

Bigarrenean Urrestilla, Eskoria-tza, Areso, Larraun, Napurrak eta Beti-Gazte.

Getxon egingo den finalerako txartela lortuko dute multzo bakoitzeko lehenengo hiru sailkatuek. Bigarrenean lehia ikusgarria gerta daiteke, lehenengo postua lortzeko Urrestilla eta Beti-Gazte nor baino nor ariko dira-eta. Urrestillak lortu zuen iaz zilarrezko domina kategorian honetan, baina Lesakakoez indartsu hasi dute Euskal Herriko Txapelketa. Gainera, hirugarren postuarengatik borrokatuko dira gainontzeko taldeak, baina kontu berezia eduki beharko da Aresorekin. 600 kiloetan nafarrak bikain ari dira-eta.

Bihar 11.00etatik aurrera lehiatuko dira Aizarnazabalen (Gipuzkoa) 560 kiloetako 1. eta 2. multzoak. Lehenengo multzoan Urrestilla eta Beti Gazte berriz aurrez aurre izango dira. Betelun gipuzkoarrak nagusitu ziren eta bihar Aizarnazabalen nafarrek ordainekoa eman nahiko diete. Eskoriatzak eta Barrundia A-k ezer gutxi egin dezakete lehen bi postuetako bat eskuratzeko.

Bizkaitarren arteko lehia da bigarren multzoko aipagarriena. Urdulizko Iparralde da lehena sailkapenean, Abadiño, Areso eta Goiherriren aurretik. Bihar garaipena lortzen duenak ia-ia poltsikoan izango du finalean izateko txartela. x

Pilota

Peluaga Zeberioaren aurka gaur palako buruz burukoa

Irabazlea Sanchezen aurka izango da finalerdia

Aitor Ugalde / Donostia

BI palista gipuzkoar lehiatuko dira gaur Bigarren Mailako Euskadiko Buruz Buruko Txapelketan: Peluaga eta Zeberio. Lehena maila honetako egungo txapelduna da eta Zeberio lehen aldiz ari da jokatzeko buruz buruko txapelketa hau. Baina profesionaletan daraman denbora gutxian goraka doala erakutsi du Elduaingo aurrelariak. Bigarren Mailako Euskadiko Binakako Txapelketako finala jokatu du eta buruz buruko txapelketa honetan iaz finala jokatu zuen Varela kanporatu zuen 35-15 irabaziz. Gaurko irabazleak Sanchezen aurka jokatu du finalerdian.

Konpa-Arkarazo galtzaile

Manilan • Zestapuntan, Konpa-Arkarazok lehen partidua galdu zuten Manilako tor-

nean, Bereikua-Aranburu 30-25 gairitu baitzituzte. Sailkapeneko lehen postua galdu dute. Konpa-Arkarazok torneo partidurik txarre jokatu zuten. Bereikuak, al partidu handia egin zuen Aranburuk ondo lagundu zuen Beste partiduan, Egigui II.a-Barrondok arazorik irabazi zieten Quijote-Macrelli filipinarrei, 30-15.

Emaitza hauen ondoren, reikua-Aranburu geratu sailkapeneko lehen postua Finalerdietan Remen-Goiti eta Rekalde-Barrondok jokatu duten partiduko bazlearen aurka neurtuko ra. Lesionatuta egon den kaldek jokatu egingo du. Finalerdia, bigarren postua geratu diren Konpa-Arkarazok hirugarren izan diren men-Goitiaren aurka jokatu dute. x

Eskuz binakako finalerdia argituko dira Lehen Maila

Lagun Artea eta Boskotarrak faborito dira gaur

Koldo Olano / Donostia

JOAN den asteburuko jardunaldian Lehen Mailako eskuz binakako final-laurdenak ia erabakita gelditu ziren. Baina bizitzetik dagoen artean itxaropena ez omen da galdu behar eta ezustekoa ematera aterako dira mañariarrak bihar 13.00etan Sestaon Lagun Artearen aurka.

Final-laurdenetako beste norgehiagoka Danok Lagunak eta Boskotarrak taldeek jokatu dute bihar Urtuellan 16.30etan. Urtuellaok tinko azaldu zaizkigu orain arte etxeko partiduetan, baina galtza bete lan izango dute donostiarrek 14 tanto baino gutxiagotan uzteko. Jardunaldiko beste bi partidua atzo gauean jokatu izango dira, ezusteko handirik ezean, Beti Poz eta Ozkarbi sailkatzea bide zen normalena.

Ohorezko Mailan, Lizaiten San Miguelek eta Atxartek jokatu dute gaur 16.30etan. Bigarren postua jokoan dagoenez, bi taldeek euren bikotetarekin jokatu dute, dafarrek Yaniz III.a-Garcia eta bizkaitarrek Urien-Azko retetekin. Irabazleak txapelketan jarraituko du, baina eztaizailleari aukera gutxi geratu zaizkio txapelari begira, Lopezñon jokatu den partiduan Paz Ziganda liderrak San Meren aurka ez duela hurrengo bai deritot. Partidua bihar goizeko 11.30etan izango da.

Behealdean ere gauzak eta larri ageri zaizkigu Amezetako Zazpi Iturrik honetan jaitsiera postuetatik dagoena- neurketa izango du Donezteben bi goizeko 11.00etan Txarretaren aurka. x

gaurko partiduak

■ DEPORTIVO 16.30

• **Buruz buruko txapelketa: Peluaga / Zeberio.** Juan Pablo-Otero / Urkia-Torre. Daniel-Garrido / Arribillaga-Langarika. Landea-Azelus / Egibar-Goitia.

■ LABRIT 17.00

• Bengoetxea IV.a-Mendia / Zabala-Taberna. Retegi II.a-Erriarte / Eugi-Arretxe.

■ BERGARA 17.00

• Ortiz-Galardi / Oregi II.a-Urrutia. Arteaga-Hirigoi / Koka-Arroyo II.a.

■ GALARRETA 16.00

• Altuna II.a-Imaz / Urrutia-Urretabizkaia II.a. Ezkurra-Auzun / Altuna I.a-Agerre. Urretabizkaia I.a-Zubeldia I.a / M. Lekunberri-Txikuri. Iñigo-Iriarte II.a / Bitoria-Lizaso.

■ EUSKAL 16.00

• Sarasua-Adin / J. Lekunberri-Etxeberria II.a. Elizalde II.a-Aizpuru / Lezea-Eizagirre. Zeberio II.a-Lekunberri / Kalonje-Etxeberria I.a. Zeberio I.a-Ekiza / Odriozola-Zandio.